EUSKAL ORRIA

! Orrelakorik... !

Ez dira egun asko izpafingi lefo tartean itz auxek irakuri nituela: "y los pacíficos vascos"... Ez dakit zertaz esaten zuen biño esate$_n$ zuela egia da.

Oste ez dutela, aspaldi-aspalditik gure zañetan dakargun berexitasuna ezafi digute gaurko goi-aldeko nagusi agintariak; askotan esan dugu euskelduna ezdela guoartierako jaio eta ori egia dan edo ez ikusteko ez da euzko abestietan guda-abestirik, arkitzen.

Biño gu gudazaleak ez izan afen gudalerako sendo eta sasoi gogofekoak izandu gera "valiente en la lucha, magnanimidad estupenda" esaten du Plinick: ezin menderatuak beti; euzkeldune$_n$ guda aufeko santso bizia euzko aitaren biotzetan ezartzen ze$_n$ eta odol beroz Euskalefira negafa eta zoritxafa ekafi nai zutene$_n$ gainka jausten ziel.: emakume bujartsuak, bestien tartian ziela, jo kankafean eta zefaldo erortzen zer etsai dolofa bere$_n$ oñetan.

Onek ez du gure paketasun izena ufatzen: paketsua izatia ez da gure kalteko bideari beufiak artu ez izatea Eta gaur berta$_n$ ere "los pacíficos vascos" deitu digute, baño aitu dira leguntasunak eta gure etsaiai garai batea$_n$ bezela asafe bizia erakusi bear diegu ll edo bizi. ¡Jaunak, zuen biotzetan batere mantsunik, eta abertzaletasunik leonduzute ez gelditu zuen asafea erakutsi gabe.

Lengo igandean Pasai S. Pedorko eletzan ara zer gertatu zitzaigun: Apaiz nagusia itzaldia egiten ari zan artean ikusi genituen gudari mutil batzuek (ixas-gudariak) sartu-atera zebiltzala amafetak meza nagusian. Berlala ezpa txafa emar nidu, biño neroni iruitutakoari ezin artzik eman nion.

Itzaldia bukatu zanian badijoa gure mutil gazte oietako bat apaizen ondoren asafe antzean. ¡Ez jakin bear nik ordua$_n$ zer esa$_n$ zion apaiz jaunari! Danak alkar artuta estutuko genuen bai afoputz ura. "¿No sabe V. predicar en castellano?" esan emen zion. Ori jakingu nuanian odolak irakindu zizaizkidan: ez da ofelakorik iñon gertatzen eta nu$_n$ eta atzefitafak, lau edo bost ankamakilek geren mutufetara eman. ¡Ori gure efian bertan! Ezin leike ori ofela utzi ¡oiek nola ufutiratuko ditugun gabiltza euskotafak eta ¡jo zaz alajainkia aufera!

Aufeko irandian esa$_n$ zuen apaiz jaunak: "gudari auek etofi diran ezkero erderaz itz egingo det" eta baita egifi ere. ¿Eta gu?

¡O, utzi utzi, ez dira gauzak ofen efaz joango ez! Erakutziko dizutegu euskotar sendoak bati eta betseari ere, gogofean astian nor geran, eta ez esan orduan gaiztoak garala, lenago zeotafak esandako itzari eutziko diogu "los pacíficos vascos". Igande ontan berian Gaztelzko Gotzai agurgafiaren eskutiza erderaz irakufi zuen: itzaldia erdixka egin zuen: erderaz eta euskeraz eta ala ere ¡zitalkeri ori egin nai...!

¡Lo, euskalduna, egin lo alsai gizarajo ofek, eta i lo agola ire etxeko enbofak sutan zegoztek; intzak lo, intzak lo ajolkabe lasai ofek eta ire ondasunak lapurtzen dizkitekenean ator saminduta galdu direla esatera; galdu ari nai badek; bukatu dituk biguinkeriak eta orain etzeok iretzat kupirik; galdu ari nai badek ire mutufetan nai duena egiten utz diek eta atzefitar maltzur oeri!

¿Itz gogofak adiskide? Bai noski zuk ez duzuna esa$_n$ ezkero eta otxan-otxan egonta ez da ezer auferatzen eta asafean asi ezkero gaiztoak gerala. Orain arte izan dugun efua auxe izandu da ba: onegiak izatia eta asafe jafiezkero, gaiztoak et a ezin egonak gerala.

Utzi guzia galtzen. Oraintxe euskera bokafik gelditzen zaiguk eta ez ajolik izan. Gero etsaiak menderatu gaituzela esanez etofi asi eta galdu aizela betiko ¡Galdu ari nai badek orain ireak diran eginbear eta esku arteari ez obeto begiratzezkero! ¡Galdu ari nai badek...!

TEGE.

¡ Itziar'ko Bidezkundea !

Jainkoak lagun, ¡nola ez! datofen igandean andik edo emendik, an sortuko naitzazute beranduxiagoa$_n$ bada're.

Egualdi ona ba-litz, ¡zer egokiera, Aspe jaunak, Itziar'ko Ama'ri, antxen bere aufean batuko geraden alaba guzien biotzak eskeintzeko! ¿Izango ote da entzungor egingo dunik? ¡Afen! ¡ez ofelakorik!

Jiñoiz arkitu ba-da, ¡oraintxen bai! ¡ene! ¡emakume euskotafa! zure bear da gure efia bufukaldi ontatik garaile irtengo ba-da.

Zu, izanik zugatz sendoa, ¿nola ez ba eskefi zure igali onurakofak gure Ama maitoari bere oñetan auzpezturik, benaz eskatuaz gaizkatu dezala "efi gaixoa zital guzien mendetik, "garbi" nagoegula ta gorde, Berari eskeintzeko.

Ba dira bai, gure artean ere, eta zer izkilu txafa emakumea, zitalkerira jartzen danean! ¡Ainbeste on egin lezakena nai izanezkero! ¿Nola ez ba. bera izanik maitasunaren itufia ? Itu fi ongafia. emakumearen biotza, bafia, ez jakin askok ez dakite onegite$_n$ "itufi" ofetxaz eta edonun dariola darabilta; ofela indartzen dituzte sasi eta arantz ugari baztefetan, iguzia beren kaite!

Batu gaitezen ba, egun ofetan Itziar'ko Ama're$_n$ oñetan: eska dezaiogun "su gar bizia" gure biotzak sendotuaz elor di guziak efe eta bere ordez loretegi eder bat biurtu dedin; gure biotzak lore bakoitzak izan bitez.

Zu, zera gure Ama
Zu, gure efegifia
Eguzkia bezin
Alai ta atzegifia
Andre xamur eta guztiz altzua
Zein edefa zauden
Aldare ofetan.
Ta nola zabaltzen dezun basoetan
Zeruko lorien usai gozoa,
Zeruko lorien usai gozoa.

"LAU. U".

Itziar

Il onen laurean izan degu gure artean Sendotzo eman eta gure elizan "Artzai Destaldi Donea" egiten gure Artzai maitagafia, gure Gotzai J Zein pozgafia izan zaigun gure artean ikustea eta zein benetan txalotu degun bere etofera. Lazaro gorde deigula Jaungoikoak Aita ain maitea Euskalefiko Bafuti onetan

Bidezkundea dala ta

Pozaren pozak artuerazi dit nere idaz kortza. Eta ¿nola ez poztu Gipuzkoako gure aizpa guztiak gure Itziarko Amaren onduan ikusi biar ditugun aste onetan? Benetan pozez gaude gu eta pozez dago bai ta ere gure Ama Miren Itziarkua ofelako bere Alaba taldea beregana etofita ikusteko.

Ziur gaude asko izango dirala il onen amafean Itziafa etofiko diran Maria'ren Alabak Oroitzen gera nola, orain dik antziña ez dala, ikusi genduan uri point au Luistar zintzoz beteta eta uste degu oraindik geyago izango dirala datofen igandian etofiko diran Mariaren Alabak. bada, diyote enparantza eta dantza lekuetan gureetako gazte asko ikusten dala, eta Mariaren Alabak leku oyetara bafio afeta geyagorekin juan biar degu Mariaren omenez egiten diran biletare gure Amari ziñezko maitetasuna agertzera. Etofi bai guztiok Euskalefiar ain maitia dan Itziarko Ama danok batean gorestera.

Emen gaude gu zuei aldan aferik one na emateko zai eta laguntzeko presto. ñork nai badu guk zerbaitean laguntzea (guk egin leikeguna bada beintzat) pozik egingo degu; agindu bada biidur gabe zuen aizpa

ITZIAR-MAITE'ri.

Dr. Clavero (dentista)
FUENTERRABIA, A, principal

Gure Gaztedia

¡Euzko gaztedia! ¿Abertzaletasunean aiton diraien belafietan, entzun ote da ñoiz itz porgafigorik? ¿Abefi-alde ainbat eta ainbat kemen apurtutako, euzko-aiton oien biotzari, taupada gogofagorik eragiten dion izenik ba ote da? ¿Abando'n lenengo argia ikusi zuanaren, gudari-talde osatzaleari, nork nabaitu erazter dio itz bulartsu ofek añeko itxaropenik?

Egi alde espetxeratuak batzuek, erbes letuak besteak, irañez azpiratuak oiek: era ilun ortan ikusi bai dira abertzaletasunean aiton diran gaztenak. ¿Oiek, nora itzuli dituzte beren begiak, euzkogaztedirunt baño? Eta egia izan ere.

Txalogafia da, abertzale-aitonen gazteenganako ben-maitasuna, gazteenganako itxaropena. Bai dakite Abefiaganako opa zuten zoriontasuna, oien eskutan dagola. Beroietan nabaitzen bai dituzte, Abando'tar ziñopare$_n$ jafaitzale bulartsuenak. Bai dakite euzko gaztedi jatofa Euzkadi'n zear dabilen bitartean, eztala au ilko, baizik idoiz baño bulartsuago altxa eraziko dutela... oienganako, maitasun sendoa iza$_n$ bear nai ta na ez, berak opa dutena, biotzez maitasen bai dute; izan ere, abertzale egizkoa da oraingo euzko gaztedia

Gaztedi biotza gauza afigafienak opa ditun biotza degu, egintza izugafienak berak bete ditu, edesti zear bagabiltz au ikusiko degu noski. Euzko gaztedia ere ludin ikeratu eraziko dun egintza afigaf. baten azken bera nabaituaz, Abefi kateak apurtzera arin dijoa, eta Jauna lagun, Jel pean alkartzen dan gaztedi bulartsu au dala bide ¡Euzkadi arkatuko da!

UZTURE.

Oiartzun

Olo lapufak

Lengo larunbatean Txipibefitik amar olo ostu zituzten; astearte gabean berriz Axerigofi'ko itxolatik beste ogeyen bat. Nor baidire ezdira olo jale makalak; ezeren aztafanik ezda oraindik. Ofila.

Sartu gera urteak duan ilabeterik apañenean mendi, zelai, ta ibar guziak osto bigun ta lore apañez edertuik daude badirudi lore mota guziak beren usai gozoa zerûko amari eskeintzen diotela esanaz "Gure garbitasunaren usai gozoa artu ama zuretzat" Ori bera egiten saya gaitezen Luistar ta Miren alabak. lufeko lore usai gozodunen artean gure biotzak elkarturik eman betiko zerui lorategian gorde dizan.

Axerko" idazle befiari.

Zertzi egunean emen ibiliya nazu ezeren aztafenik ateratzen ote duten zure bila, lateri galdetu bestiai zirikatu baña dana alpefik izan zait zure bila ibiltzia. ¿Ikusiko litzake zeñen jakitmiñosak geran emakumiak e?...

Igande afatsaldian ikusiko zaitut ta beti bezela "tertuli" goxua eliz atarian egin ere bai ta bitartian agur. Iya astego nor edo nor agertzen geran euskal ofian esan bezela.

Friotzak.

Igandean Jaunari kontu eman zion Gedos'tar Batista'k G. B. Eriotz ori jafata Plazenzitik etofi zan bere ezkon afeba ta eriotzak afapatu du ura ere iru egun bafu. Ofa iru egun bafu bi gorputz ate batetik. Gure samin agufa biyen sendikoai ta irakurle otoi beren gogo aldes.

--Andefegikoak alabatxo bat izandute. Zorionak

Gudaritzatik etofita agurtu ditugu Elizepefia'ta: Joakin ta Afuti'tar Joxe Manuel. Zorionak.

Irubelafa'ren deiari.

Oraintxe lafi gera, izan ere autspian gua egon oi dan lez gure iziarko bidezkundea ere iduki digute, orain ordea bat batean austsak astindu ta brasa gofi gofi agertu zagu.

Igandean degu beraz; bat, bi, iru, egun ondo zenbatuak daude. Ezdakit eri ontako M A. zuzendariak Deba'tafak bigaldutako agerkai edo "programik) artu duan beintzat ezdā zarata aundirik azaldu. ¿Ez da ja...rik ere? Dena dala idazle azkeneko onen utsunerik ez dezute arkituko tziafen J. L.

Iya "zartxo" Lezotar jator ofek egun ortarako besterik ezpada "Anastaxio" ri "Saca la bolsa" eragin ta bitartean zure iritzia eman.

Beste idazle guziak ematera. "Yolanda" "Arantxa" "Maitxo" ta abar etzerate nere zirikaldiai begira egongo noski "Irubelafa"k ziyon bezela Ormaxuri bat Karnaba talde baten onduan abeslari jartzia litzake ni zuei deika astia.

Goazen ba Itziarko amaren oñetara guziok otoitz beroz eska deyogun Euskoefiaren zoriona. Igande arte agur.

PILIPA.

Erkal eratuak aintzat artu bearra

Atzo, il onen 20'an, Araba probintzi'ko Jaulari Zizpil (gobernadore Zibil) Jaun Goretsia, bere jauregian agintarauz ikustatzeko goitasuna izan nuan; eta berari aspalditxo Neure gizatasunezko oroipenak eta biotzeko adiztasuna befiro aitortuaz gañera. Nere begirunezko manpetza eskefi nion ain kidez beregan ordezkatuak zeuden erkal eratuakiko.

Nere ipintza, gai onetan, ezin liteke izanzeatz eta zintzoagoa; Nerea deitzen diot gure Ama Elizarena obeto detuko banioke ere, berak erakutsi bait die beti bere semeai, bere Irakasle Alkin Jesukristo'gandik, eta erdelen bialdu aundi Pablo Donea gandik, ez zurikeriz burua makurtzeafen, baizik Jaunaren aginduz, edozein agintaritza aintzat eta begirunez artzeko, bera gabe ezin litekelako zutik iragan gizarte zizpiñik.

Nere gogoa ere ezin liteke izan jator eta jakiagoa; alegia, Jaun Urtzi'k eraindu ditzaten gure abefiaren ufa-Jesukristo ta bere Eliz gureganaren aribide auek oiralako auferapen sendoen, am lamen eta biozkidaren, pake izakor eta iraunkofaren egizko itufao bakafak.

Nere apaiz maite-maiteak eskatuko die Gureganari ala izan dedin eta efi sinistun leyalak berakin, egokiena derizkien eran Neuk al mami-mamitik es katzen diotau bezela; ta Nere ikasbiezaren eras, arduratuko dira iraunbiltzen beren probintzi ta lekuetako agintari bakoitzarekin begirunezko menpetasun eta biotz ereskidezko alkartasun auetan beitantxe.

MATFO, Gazteiz'ko Gotzaia.

Gazteiz 131'ko Jofaila'ren 21'an.

OAÑA.—Gazteiz'ko Gotzaitegi'ko Boletin Oficial'etik euskaltzale batek bere buruzpide utsez euskeratua.

Barriola'tar I. M.
GAXOTEGIKO SENDAGILLEA
URDAIL - GIBEL - ESTE
GARIBAY 20 2g. - 3'tatik 5'etara

LEA V. "EL DIA"

Abestiak

Gure abefiaren une lafi oietan aberkideen estutasunak nabaiturik, bein zerbaiten itxaropenakin poztuta, edo bestean aspaldian izan gabeko askatasunaz dagizte$_n$ dedak entzunik urteaten garairik alaigafiena lagun dedala, emen naiz nere itz motelak oraingo gatz beroxiakin bizituko dituzuen ustean.

Izpafingi bat betetzeko asmota$_n$ bezela artu det idazkortza, baña nere iza eraz ezin jabeturik, gauza guztiak bateau esa$_n$ naiean; ta idazkortzak lefoak neurtzen galazte$_n$ didala emen nau kazute mutu bati eltzeko zai.

Gaia, betiko leloari jafaika berexiki Mariaren Alabentzat.

Ikusirik lore ilari ateak zabaldu dizkagual, ta liluraturik, askatasunez abestutzera noa Ta beste batek gogo samiñakin Aizkofiren oñetan esan zuana diot nik orai$_n$ alaitasunez lo zofotik ir tetzen ari geran egun senti onetan:

Alaitu zaitez one biotza tekin kantari
guziak lotan daudela
Olar afoak ernai ta tente gaua$_n$ erdian
egin oi duan bezela.

Abestutzera natorkizuela esan det, ta egia da Ti oni dagozkion abestiak, beraz Ama Birjiñarenak.

Baña aufera Elizak nolako afera egin dien abestiei esan nai dizuet.

Begiratu bat emanaz antziñako efietan (470 urtetik 300 urtera Jesusen aufetik) ospatsuenetako bat izan zan Atenas, Greziko uri nagusiari, ikusten da garantzirik aundiena jimnasia edo soinketa ta eresiari ematen ziela. Aurenekoa gorputzari liraintasuna emateafen ta bigafene gogoa sendotu ta onerazteko.

Soinketa gorputz edo soña liraindu ta biguntzen duan bezela, eresiak gogoari egipen berak egin erazten idzkala zioten.

Ta "Temistokles" zeritzan irakasle jakintsu bati abestutzen etzekialako bizidea ukatu zioten. Ainbesterañoko garantza ematen zioten gogoaren eziereri

Ezin ukatu abestiak gure gogoarengan duan aal aundia, badirudi aufari lo gozoagoa egin erazten diola. Umeetan ere nagusitza darama. Gazteen alai tasunaren agerkai, gudarien bizigafi, gizon ospatsuei damaiogun oparirik berena.

Beraz izanik Eliz Ama Donea izakirik gogo ta bikañena, ta ezaguturik antziñako Atenas'tar aiek baño obeto animaren jatofiakin batera bere ezierako abestiaren almena, esan beafik ez dago nolako begiramenaki$_n$ artu duan.

Ama ona bezela Aintza abestutzen dio Jesus Aufari gotzontxuekin batean Xamurtzen da umetxoen abesti lanekin. Alaitu gazteen agerkai onekin, bizitzen ditu beraren gudariak ta aintzatzen ditu gizon ospatsu edo Doneak.

Azkenik beraren seme alaba geranoi laguntzen digu betikotasunerafio, ta dana abestiaren bidez.

Badu Eliz Amak doneen artean Donea dan izaki bat urtean dan iluk alaigafiena opaltzen dion izaki bat: Andre Maria ta Ofila aitatu ditut.

Bidezkoa deritzait, batez ere beraren alaba geranok gure oparirik xamurenak berari eskeintzia, au da, loriekin batean gure abestiak.

Guriak, diot tamalez, au ere jakin bea fe, gera, zenbait efitan berak ulertzen ez duten izkeran abesten duelako, gu-

Itziar'a

Zuentzat ene aizpa maiteak, zuentzat Deba'ko M. A'k ifior mintzeko bilduriz dar, dar, eltziten diodan idazkitu onen lenengo lefoak. Afen, gure bilerenganako maitasun sutsua besterik ez beitan ikusi

Onen indafak bultza ta azaldu zuten Irubelafa'k Gipuzkoako M. A. guziok alkartuta bidezkunde ospetsu ikusgafia eratzeko asmoa.

Ospetsu ikusgafia bai, Gipuzkoa'ko M. A.ai dagokien erakoa. Ortarako ordea lana gogotik egin bear. Orain artean gure araudian zitnzo bai, bañan izkutuan, bakoitza gere aldetik, elkafen befi gabe ibili bai gera.

Luistafak euren batzar oroigafia, baño len ibilitako joan-etofi atzera-aufeak oroitzen? Aien ixtilu ta zaratak, izpafingietan ilabete batzuk aufez. ¡Ala bear!

¿Ta guk ofi batzuek zabaldu ta besterik gabe? Batzuen batzuk erantzungo dute noski, batez ere ingurukuak Zumaia, Mutriku, Zarautz, Afua; gu ere Euskaltzale andereñoetatik sailtxo bat joatekoak gera, ta Deun Sebasten egunetko batzafean bidlutako guziak edo gehenak beintza, bai. Asierako ederki.

Efi bateko bileraren ufezko eztalak ospatzeko naikua. Baña izpafingietan argitaratu dan asmoari dagokion ainbatekoa, ez. ¿Ez genion ba, M. A.k Luistafak baña geiago giñala? Oriek 2.000 inguru bildu ziran. ¿Gu goienera jota laurdenera iritxiko ote giñake? Naiko lan.

Gañera oraingo au bidezkunde sail sala eratu digute ta guk, euskal idazleak alegia batzar nagusi edo ortako antz pixka bat eman nai, ofa. Ez degu ba begi txafez ikusten zuenjaialdia; ezta eguna aldatzeko eskatzen ere. ¡Igan dea irixteko pozik ez ba gaude ba! Bakar bakafik, zuen Deba'ko M. A.'en jaialdia bezela azaltzea; Gipuzko guziko izena bidezkunde ofi eman gabe.

Beste au noiz, nun, nola ta abar igan de bazkalondoan egingo degun batzartxoan galetzaz erabilliko degu. ¿Aspalditik zai daukazun talde onen artzai makila ordur elduko Tene?

tzoberart
IRA.

Aguirre y Mendizábal
Elaboración de chocolates de primera calidad, fabricación de caramelos grajeas y dulcería en general a base de materias primas garantizadas. Ventas al por mayor. Condiciones ventajosas. Servicio rápido
Oficinas: SAN JUAN, 13 :-: Tel. 1-27-79
SAN SEBASTIAN

ze ele maite ontan bear aña abesti es balitz bezela.

Pozik utziko nuke nere luma norbaitek adierazi nai balu zenbat lan egin dan euskal abesti oen alde.

Gai ontan ni baño iaogo asko dira Euskalefian.

Baña baliteke onenia$_n$ lantxo onek luze xamar irautia ta bitartean nere aal argala jafiko det gai ontan.

ARANTXA.

NORTHERN
ASSURANCE COMPANY LIMITED de Londres
INCENDIOS, ACCIDENTES, RESPONSABILIDAD
Seguros Marítimos
Agentes en Guipúzcoa: H. ZATARAIN - Mayor, 12
TELEFONO NUM. 13.194

Para muebles sólidos y económicos
LA VILLA DE BILBAO
GABINETES DESDE 275 PTAS. :-: COMEDORES DESDE 200 PTAS.
Camas aluminio, hierro, latón. Coches para niños. Relojes pared. Aparatos eléctricos
REINA REGENTE, 1 :-: TELEFONO 10.755 :-: SAN SEBASTIAN



COMPAÑIA TRASMEDITERRANEA
BARCELONA: Vía Layetana, 2 - MADRID: Plaza de las Cortes, 6
Servicios regulares de vapores correos y comerciales entre los principales puertos de la Península, Baleares, Canarias, Norte Africa, Franciae Inglaterra
Servicio quincenal Pasajes-Canarias
15 Mayo, vapor Escolano. - 29 Mayo vapor Romeu
Servicio regular semanal de cabotaje
CON SALIDAS FIJAS DESDE PASAJES, ADMITIENDO CARGA PARA BILBAO, SANTANDER, GIJON, CORUÑA, VILLAGARCIA, VIGO, SEVILLA, CADIZ, HUELVA, CEUTA, MELILLA, ALMERIA, CARTAGENA, ALICANTE, VALENCIA, BARCELONA E ISLAS CANARIAS.
11 Mayo, Río Segres - 18 Mayo vapor Periz Valero - 1 Junio vapor Río Segres
8 Junio vapor Río Navia
PARA INFORMES DE FLETES, CABIDA, PASAJE, ETC., DIRIGIRSE A SUS CONSIGNATARIOS
Hijos de F. Azqueta. -- Pasajes